



berria

Ostirala
2007ko azaroaren 9a

David Bieter, lagun batzuekin garaipena ospatzen, Boiseko Euskal Etxean. KATHERINE JONES/IDAHO STATESMAN

Alkate euskalduna Boisekoa

JON ORDOÑEZ
Donostia

Beste lau urtez izango da hiriburu bateko alkate euskaldun bakarra David Bieter (Boise, 1961). Ez iparraldean, ez hegoaldean, ez ekialdean, ezta mendebaldean ere, Euskal Herriko hiriburuetako alkateek ez dute euskaraz hitz egiten; euskal hizkuntzaren soinuz mingaina dantzatzen duten alkate horietako bakarra aurkitzeko, AEBetara joan behar da. Bieterrek Boise hiriburuko alkate-tzarako hauteskundeak irabazi zituen berriro atzo goizaldean Idaho estatuan, eta 2003tik izan duen kargua berea izango du berriz ere, 2011. urtera arte. Botoen %64 jaso ditu

David Bieterrek berriro irabazi ditu hauteskundeak Boisen (AEB), eta beste lau urtez hiriburu bateko alkate euskaldun bakarra izango da.

Alderdi Demokrataren ordezkariak, eta Jim Tibbs Alderdi Errepublikanoaren hautagaiak botoen %34 jaso ditu.

Baionako, Bilboko, Donibane Garaziko, Donostiako, Gasteizko, Iruñeko eta Mauleko alkateak ez bezala, euskal hitzuna da Bieter. Haren familia euskaldun-amerikarren ikurretako bat izan da Boisen, bai gurasoak, baita anai-arrebak ere, eta hauteskundeetan euskal komunitatearen babesa izan du. 2003. urteko azaroaren 3an bezala, atzo goizaldean ere Boiseko Euskal Etxean ospatu zuten haren garaipena; hobeto ospatu gainera, orain dela lau urte botoen %52 jaso baitzuten.

Pat aita Idahoko Estatuko Ganberan ordezkaria izan zen eta 1999. urtean amarekin batera auto istripuan hil ondoren ordezkatu zuen Davidek. Orduan hasi zen politikagintzan, aita bezala Alderdi Demokratat. Gaztetan euskara ikastera bultzatu zuen tema eta ilusio berberekin hasi zen, gainera. 2003ko otsailaren 14an Brent Coles alkateak dimisioa eman ondoren ireki zitzaizkion herriko etxearen atak.

Ez da inorentzat izan ezustea Bieterrek hauteskundeak irabaztea, inkestetan bera baitzen faborito; Kathleen Kreller *Idaho Statesman* egunkariko kazetariak hitz gutxitan laburbildu du hauteskundeetako

bere artikuluan: «Aurretik jende guztiak zekien irabaziko zuela». Krellerrek bere kronikan nabarmendu du Euskal Etxean ospatu zutela Bieterrek eta haren jarraitzaileek garaipena. Boiseko alkateak bere ondoren izan zuen Pete Cenarrusa Idahoko estatu idazkari ohia, hori ere euskal jatorrikoa, nahiz eta Alderdi Errepublikanoaren ordezkaria izan zen.

Boisen euskal nortasuna alderdien gainetik dago, eta betidanik izan dute harreman ona bi agintariek. Biek elkarrekin atera zuten aurrera 2002ko martxoan Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko Idahoko Memoriala, eta 2003ko udal hauteskundeetan Cenarruzak Bieterren aldeko botoa eskatu zuen: «Ez dut inolako dudarik eduki Bieterren aldeko botoa eskatzeko orduan. Euskalduna da, gure komunitateko kidea, oso ondo eza gutzen dut, elkarrekin atera genuen aurrera Idahoko Memoriala, eta seguru nago hautagaririk onena dela. Bata demokrata eta beste errepublikanoa izatea bigarren mailako kontua da niretzat. Garrantzitsua da Boisek alkate euskalduna eta Euskal Herriaren aldekoa edukitzea, hori oso ona da euskaldunontzat», adierazi zion BERRIARI.

HAUTESKUNDE EGUNEAN, PALAN. Orain lau urte bezala, hauteskunde egunaren aurretik ilea moztu eta Chris anaiarekin palan jokatzera joan zen David. Chris epailea da, eta anaia bezala, euskalduna. Orain lau urte alkategaiak partida irabazi ondoren hauteskundeak ere irabazi zituen, berriro jokatu zuten joan den asteartean bi anaiek palan. Alkategaiak berriro irabazi zuten aurten ere, baina, *euskalkultura.com* webgunerak jakinarazi duenez, ez anaiek irabazten utzi ziolako: «Zorte ona ematen didan aztikeria baten modukoa da», esan du David Bieterrek.

Zorterik ez du izan euskarak hiriburuetan aurten Hego Euskal Herriaren egin ziren udal hauteskundeetan. Hurrengo txanda martxoan izango du, Ipar Euskal Herriko udal hauteskundeetan. Adibide onena, ordea, Boisekoa da.